



ETXEBIZITZAKO  
BEHATOKIA

OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA

# EAEn etxebizitza eskuratzea, genero- ikuspegitik aztertuta





## Aurkibidea

	Aurkezpena	3
1.	EAEko emakumeen egoera sozioekonomikoa	4
2.	EAEko emakumeen etxebizitza-beharra	9
2.1.	Emakumeen etxebizitza-beharra, 2015eko Etxebizitza beharrei eta eskariari buruzko inkestan oinarrituta	8
2.2.	Emakumeen etxebizitza babestuen eskaria EAEn	14
3.	Babes publikoko etxebizitza eskuratzeari eta etxebizitzarako laguntzei buruzko genero-azterketa	18
4.	Ondorioak	22



## Aurkezpena

Txosten honetan, EAEn etxebizitza eskuratzeari lotutako gorabeherak genero-ikuspegitik aztertzea hartu dugu helburutzat. Izan ere, horrela, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak Emakunderen orientazioei eta, oro har, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako Otsailaren 18ko 2005/4 Legearen printzipioei erantzun nahi izan die, batak nahiz besteak politika publikoak genero-ikuspegitik aztertzeko txosten eta diagnostikoak bultzatzeko beharra aipatzen baitute.

Txostenaren lehen kapituluan, EAEko emakumeen egoera sozioekonomikoari lotutako adierazle eta aldagaiak aztertuko ditugu, batez ere emantzipazio-prozesuan eta lehen etxebizitza eskuratzean eragin berezia duten alderdiei erreparatuta.

Bigarren kapituluan, EAEko emakumeen etxebizitza-beharrak aztertuko ditugu. Atal hori prestatzeko, 2015eko Etxebizitza beharrei eta eskariari buruzko inkestaren emaitzak zeharka aztertu ditugu, genero-ikuspegia aintzat hartuta.

Horrekin batera, bigarren kapitulu horretan bertan, babes ofizialeko etxebizitzaren eskaria ere aztertu dugu, Etxebidaren datu-basean oinarrituta. Horri esker, Etxebiden izena emana duten emakumeen eskarian sakontzeko aukera eduki dugu.

Hirugarren kapituluan, babes publikoko etxebizitza eskatu duten emakumeen artean etxebizitzak nola esleitu diren aztertu dugu, Etxebizitzaren Sailburuordetzak emandako informazioan oinarrituta eta epealdi zabala (2012-2015) kontuan hartuta. Era berean, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak babestutako etxebizitza eskuratu duten herritarrei buruz 2015ean egin zuen inkestaren emaitzak azalduko ditugu, labur. Azkenik, EAEko emakumeen artean etxebizitzarako prestazio osagarriak zer eragin-maila duen ikusiko dugu, Lanbidek argitaratzen dituen genero-adierazleak aintzat hartuta.

Eta laugarren kapituluan, txosteneko kapitulu nagusietan aztertutako dimentsio guztien zeharkako azterketaren ondorioak aurkeztuko ditugu.

## 1. EAEko emakumeen egoera sozioekonomikoa

Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten emakumeek euren bizitza proiektua, emantzipazio-asmoak, gauzatu nahi badituzte, beraien egoera sozioekonomikoa funtsezko faktorea izango da, ezinbestean. Eta, ildo berean, datozen urteetan egon litekeen etxebizitza-eskaria aztertu nahi badugu, ezinbestekoa izango da emakume horien egoera sozioekonomikoaren berri izatea.

### ⊗ Emantzipatzeko adinean dauden emakumeen kopuru erlatiboak behera egin du EAEko biztanleria zahartzen ari den heinean

Emakumeen (eta gizonen) biztanleria-piramideak agerian uzten du EAEn zahartze-prozesu argia ematen ari dela eta gazteek geroz eta pisu erlatibo txikiagoa dutela. Epe luzeko egiturazko joera hori dela eta, etxebizitza eskuratzeko eskariak behera egin du, aurreko hamarkadetako datuekin alderatuz gero.

Eustaten datuen arabera, EAEko emakumeen %32,2k eta gizonen %35ek 35 urte baino gutxiago ditu, eta 35 urtetik beherako emakumeen pisu erlatiboa 55 urtetik gorakoena baino txikiagoa da (azken horiek EAEko emakumeen %36 baitira).

Izan ere, gure erkidegoan emakumeek duten bizi-itxaropenaren ondorioz, emakumeen pisu erlatiboa gizonenak baino txikiagoa da. Hala, EAEn 18-35 urte bitarteko 183.155 emakume daude (eta horixe da, hain zuzen, epe ertainera etxebizitza-eskaria handiena eragingo duen adin-tartea), eta 65 urtetik gorakoak, berriz, 264.846 dira (18-35 urteko tartean baino %44 gehiago).

### Biztanleria generoaren arabera, eta adin-tarte bakoitzaren pisu erlatiboa. Kopuru absolutuak eta genero bakoitzak guztizkoarekiko duen pisu erlatiboa (2015)

	Emakumeak		Gizonak	
	kopuru absolut.	%	kopuru absolut.	%
18 urtetik behera	174.424	15,6	184.127	17,4
18-24 urte	51.466	4,6	54.294	5,1
25-35 urte	131.689	11,8	134.419	12,7
36-44 urte	157.773	14,1	164.324	15,5
45-55 urte	188.284	16,9	186.916	17,7
56-65 urte	147.847	13,2	139.251	13,2
66 urtetik gora	264.846	23,7	193.550	18,3


Iturria: Eustat

## ⊗ EAEko emakumeek lan-merkatuan duten pisua eta langabeziaren eragina

Eustatek kalera emandako 'Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestako' (BJSI) datuek azalatu dutenez, 2015ean EAEn langabeziak antzeko eragina zuen emakumeen nahiz gizonen artean (emakumeen %15,1 eta gizonen %15,6).

Epe luzeko datuei erreparatuz ere, atzeraldi ekonomikoak antzeko eragina izan du emakume eta gizonen langabezian. Krisia hasi zenetik, EAEko biztanleria aktiboan kokatzen diren emakumeen langabezia-tasa lau aldiz biderkatu da: %3,6koa zen 2007an eta %15,1ekoa 2015ean.

### EAEko biztanleria aktiboan langabezia-tasak izan duen bilakaera generoaren arabera (2007-2015)




Iturria: Eustat, BJSI

Esan behar da, ordea, gizonen aldean, EAEn askoz ere emakume gutxiago sartzen direla biztanleria aktiboaren multzoan. 2015ean, emakumeen jarduera-tasa %52,2koa zen, gizonen jarduera-tasa baino hamaika puntu beherago.

Nolanahi ere, EAEko ekonomiaren epe luzerako joerak erakusten du geroz eta emakume gazte gehiago sartzen direla lan-merkatuan. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da atzeraldi handia egon den azken urteotan ere, EAEko emakume geroz eta gehiago sartu direla lan-merkatuan. Hala, 2007an emakumeen jarduera-tasa %45,2koa zen bitartean, 2015ean ehuneko hori %52,2ra igo zen. Aitzitik, eta denbora-tarte horretan bertan, gizonen jarduera-tasa 2007ko %65,1etik 2015eko %63,3ra murriztu zen.

### EAEko biztanleria aktiboaren jarduera-tasa, generoaren arabera (2007-2015)





Iturria: Eustat, BJSI

Emakumeen arteko jarduera tasek antzeko maila dute hiru lurralde historikoetan. Baina bestalde, langabezia tasen analisiak desberdintasun esanguratsuak antzematen ditu; emakumeen jarduera-tasari dagokionez, ordea, hiru lurraldeetan antzeko datuak daude. Araban, emakumeen langabezia-tasa gizonena baino askoz handiagoa da (emakumeen %14,9 eta emakumeen %17,2), eta Bizkaian, aldiz, egoera justu kontrakoa da: emakumeen langabezia-tasa %15,8koa da, gizonen %17,4ko langabezia-tasa baino askoz txikiagoa.

Gipuzkoan egoera orekatuagoa da, eta gizonen nahiz emakumeen langabezia-tasa %13 ingurukoa da, gainerako bi lurraldeetan baino dezente txikiagoa.

### Jarduera- eta langabezia-tasak generoaren arabera eta lurralde historikoaren arabera (2015)



Iturria: Eustat, BJSI

## ⊗ Enpleguaren kalitatea eta lan-baldintzak: etxebizitza-eskaerak gauzatzeko funtsezko faktorea

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak argitaratzen duen Lan-baldintzei buruzko estatistikak (azken datuak 2013koak dira) EAEko soldatako biztanleen lan-baldintzei buruzko argazki zehatza eskaintzen du.

Azterketa horren arabera, adina da, nagusiki, EAEko lan-baldintzetan dauden alderik handienak islatzen dituen aldagaia, hala emakumeen kasuan nola gizonen kasuan, eragin nabarmena izanez datozen urteetako etxebizitza-eskarian.

30 urtetik beherako emakumeen artean, %52,3ak ez du kontratu mugagaberik; portzentaje hau gizonen artekoa baino pixka bat altuagoa da (%50).

30-44 urte bitarteko emakumeen kasuan, aldi baterako enpleguaren pisu erlatiboa asko gutxitzen da, %24,2raino. Aldi berean, ordea, gizonekiko aldea ere handitzen da, bigarren horien kasuan aldi bateko enpleguak %17,2ko pisua baitu.

### Kontratu mugagaberik ez duten soldatako pisu erlatiboa soldatako biztanle guztiekiko, generoaren eta adin-tartearen arabera (2000-2013)

	2000	2004	2009	2013
<b>Guztira</b>	29,5	28,7	21,0	21,4
<b>Emakumeak</b>	37,5	35,4	26,5	24,3
Emakumeak 16-29 urte	60,8	54,0	49,6	52,3
Emakumeak 30-44 urte	28,9	31,1	23,8	24,2
Emakumeak 45-64 urte	19,3	20,4	15,5	15,5
<b>Gizonak</b>	24,4	23,8	16,5	18,7
Gizonak 16-29 urte	48,7	48,7	41,6	50,0
Gizonak 30-44 urte	21,0	21,6	14,3	17,8
Gizonak 45-64 urte	8,8	7,5	6,5	11,2

Iturria: Lan-baldintzei buruzko inkesta. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Emantzipazio-proiektu pertsonalak planteatzeko horren garrantzitsuak diren enplegu-kalitatea eta lan-egonkortasuna neurtzeko aldagai garrantzitsuenetako bat lanaldi partzialeko kontratuen eragina da. Bada, halako kontratu motak askoz ere ugariagoak dira EAEko emakumeen artean: 16-29 urte bitarteko emakumeen %39,8k lanaldi partzialeko kontratua du (gizonen %13,7k) eta 30-44 urteko adin-tartean, berriz, emakumeen %29,9k (adin-tarte bereko gizonen artean baino sei aldiz gehiago).


**Lanaldi partzialeko kontratua duten biztanleen pisu erlatiboa soldatiko biztanle guztiekiko, generoaren eta adin-tartearen arabera 2000-2013**

	2000	2004	2009	2013
<b>Guztira</b>	5,7	9,7	10,7	16,0
<b>Emakumeak</b>	12,7	20,4	19,5	27,2
Emakumeak 16-29 urte	17,0	18,2	22,2	39,8
Emakumeak 30-44 urte	10,7	24,6	20,7	29,9
Emakumeak 45-64 urte	10,4	15,1	16,1	20,3
<b>Gizonak</b>	1,4	1,8	3,4	5,8
Gizonak 16-29 urte	3,0	2,6	7,1	13,7
Gizonak 30-44 urte	1,1	1,5	3,3	5,2
Gizonak 45-64 urte	0,3	1,6	1,7	4,3

Iturria: Lan-baldintzei buruzko inkesta. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Ildo beretik, emakumeek lan egindako ordu bakoitzeko batez besteko ordainsaria gizonena baino askoz ere apalagoa da. Are gehiago, atzeraldiak iraun duen urteetan emakume langileen ordainsaria gizonena baino gehiago beheratu da: 2009 eta 2013 bitartean, emakumeen batez besteko soldata %14,2 gutxitu da (eta %8,6 gizonen kasuan), eta are gehiago jaitsi da, gainera, emakume gazteenen artean (-%25,5).

**Batez besteko ordainsariaren aldaketa (ehunekotan), generoaren eta adin-tartearen arabera (2009-2013)**



Iturria: Lan-baldintzei buruzko inkesta. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila




## 2. EAEko emakumeen etxebizitza-beharra

### 2.1.- Emakumeen etxebizitza-beharra, 2015eko Etxebizitza beharrei eta eskariari buruzko inkestan oinarrituta

2013 eta 2015 bitartean, lehen etxebizitza eskuratzeko premia adierazi duten emakumeen kopuruak behera egin du: 2013an 31.777 emakumek egin zuten eskaera, eta 2015ean 30.957k.


Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten emakumeen eta gizonen bilakaera konparatua (2009-2015)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza-beharrei eta -eskariari buruzko estatistika

Emakumeen beherako joera hori ez dator inolaz ere bat etxebizitza-beharra adierazi duten eta horretarako diru-sarrerak dituzten gizonen artean izan den hazkundearekin. Izan ere, kolektibo horrek %24,8 egin du gora 2013tik 2015era bitartean.

Lehen etxebizitza behar duten emakumeen eta gizonen kopuruaren aldaketa-tasa (2010-2015)




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza-beharrei eta -eskariari buruzko estatistika

Epe luzean begiratuta, ikusiko dugu 2015ean emakumeen eskaeren pisu erlatiboa (%42,5) 2007az geroztiko apalena izan dela.

Era berean, lehen etxebizitza eskuratzeko beharra adierazi duten eta behar hori betetzeko diru-sarrerak dituzten emakumeen profilaren berri ematen diguten hainbat ezaugarri nabarmen daitezke:

- Emakumeen kasuan, etxebizitza behar duten 35 urtetik beherakoen pisu erlatiboa handiagoa da gizonen kasuan baino. Etxebizitza behar duten emakumeen artean, emakume gazteak (35 urtetik beherakoak) %84,8 dira; gizonen kasuan, zortzi puntu beherago (%76,7).
- Gizonekin alderatuta, lehen etxebizitza eskatu duten emakumeen artean askoz gehiago dira unibertsitate-ikasketak dituztenak (emakume eskatzaileen %62,5 eta gizonen %31,9).
- Lan-egoerari dagokionez, aldi baterako kontratua duten emakumeen pisu erlatiboa handiagoa da gizonen kasuan baino (emakumeen artean %49,7 dira, eta gizonen artean %41,0).

### Lehen etxebizitza behar duten pertsonen azterketa konparatua, generoaren arabera



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza-beharrei eta -eskariari buruzko estatistika

Etxebizitza-beharrei eta -eskariari buruzko inkestak etxebizitza beharra dutenen kolektibo hori estratifikatzeko prozesu interesgarria egin du, kolektiboko kideen diru-sarrerak aintzat hartuta (diru-sarrera nahikoak *versus* ez-nahikoak/ezegonkorak). 2015ean, 30.957 emakumek etxebizitza-beharra adierazi eta diru-sarrerak zituzten. Alabaina, kolektibo horretako emakumeen %18k soilik esan du etxebizitza eskuratzeko diru-sarrerak nahikoak dituela; etxebizitza behar duten gizonen artean gehiago dira, azken horietatik %24k adierazi baitu etxebizitza-beharra gauzatzeko diru-sarrera nahikoak dituela.

Adinari erreparatuta, etxebizitza eskuratzeko diru-sarrera nahikoa duten emakumeen pisu erlatiboa gizonena baino txikiagoa da adin-tarte guztietan, baina batez ere 35-44 urteko adin-tartean.

**Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18 eta 44 urte bitarteko pertsonen banaketa, diru-sarreraren eta adin-tartearen arabera (%)**

	Diru-sarrera nahikoak		Ez nahikoak / ezegonkorak	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
<b>Guztira</b>	<b>5.578</b>	<b>10.067</b>	<b>25.379</b>	<b>31.812</b>
18-24 urte	449	952	3.633	3.659
25-34 urte	4.096	5.692	18.073	21.826
35-44 urte	1.033	3.423	3.674	6.327
<b>Guztira</b>	<b>18,0</b>	<b>24,0</b>	<b>82,0</b>	<b>76,0</b>
18-24 urte	11,0	20,6	89,0	79,4
25-34 urte	18,5	20,7	81,5	79,3
35-44 urte	21,9	35,1	78,1	64,9

Iturria: Etxebizitza-beharrei eta -eskariari buruzko estatistika

Generoaren eta diru-sarreraren araberako azterketan sakonduz gero, honako ezaugarri hauek nabarmen daitezke:

- Etxebizitza-premia eta horretarako diru-sarrera nahikoak dituzten emakumeen kolektiboan gazteen (35 urtetik beherakoen) pisu erlatiboa gizonen artekoa baino handiagoa da.
- Datozen urteetan lehen etxebizitza eskuratzeko premiari aurre egiteko diru-sarrera nahikoak dituzten emakumeen artean askoz gehiago dira unibertsitate-ikasketak dituzten emakumeak, gizonen kasuan baino.
- Lan-egoerari erreparatuta, diru-sarrera nahikoak dituzten kolektiboan, gehiago dira aldi baterako kontratua duten emakumeak, gizonen kolektiboarekin alderatuta. Aitzitik, diru-sarrera ez nahikoak/ezegonkorak dituzten pertsoneri erreparatuta, jarduerarekiko duten profilen harira gizonen eta emakumeen antzeko pisu erlatiboa dute kasu guztietan.

Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18 eta 44 urte bitarteko pertsonen banaketa, aztertutako aldagaien arabera (%)

		Diru-sarrera edo errenta propioekin					
		Diru-sarrera nahikoak			Ez nahikoak / ezegonkorak		
		Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak
<b>Adina</b>	18-24 urte	8,9	8,0	9,5	12,8	14,3	11,5
	25-34 urte	62,6	73,4	56,5	69,8	71,2	68,6
	35-44 urte	28,5	18,5	34,0	17,5	14,5	19,9
<b>Ikasketa-maila</b>	Ikasketarik gabe / Lehen mailakoak	11,7	0,0	18,1	11,3	5,0	16,3
	Lanbide-ikasketak	36,8	22,0	45,0	34,8	26,0	41,7
	Bigarren mailako ikasketak	6,7	2,4	9,1	9,0	9,3	8,8
	Unibertsitate-ikasketak	44,8	75,5	27,8	44,9	59,6	33,2
<b>Jarduerarekiko harremana</b>	Ez da soldatakoa <sup>(1)</sup>	20,6	19,9	21,1	11,3	6,0	15,5
	Lanean, kontr. mugagab.	56,1	47,0	61,2	32,7	35,9	30,1
	Lanean, aldi bat. kontr.	23,2	33,1	17,8	50,6	53,4	48,3
	Langabea	0,0	0,0	0,0	3,8	2,7	4,6
	Beste egoera bat	0,0	0,0	0,0	1,7	2,0	1,4


<sup>(1)</sup> Multzo horretan sartu dira norbere kontura ari direnak eta bazkide kooperatibistak

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza-beharrei eta -eskariari buruzko inkesta

Era berean, etxebizitza behar dutela adierazi eta horretarako diru-sarrerak dituzten 30.957 emakume horiez gain, Etxebizitza-beharrei eta -eskariari buruzko inkestaren arabera badira beste 13.661 emakume behar hori eduki arren, diru-sarrera nahikorik ez dutenak. Beraz, aipaturiko inkesta horren arabera, 2015ean 44.638 emakumek zuten lehen etxebizitza eskuratzeko beharra EAEn.

Diru-sarrerarik ez baina etxebizitza behar duten emakumeen kolektiboan, emakume gazteen pisu erlatiboa nabarmentzen da (%48,6), gizonen kasuan (%36,6) baino handiagoa. Era berean, etxebizitza eskuratzeko beharra gauzatzeko diru-sarrerarik ez duten emakumeen artean, unibertsitate-ikasketak dituztenak (%43,9) gizonen kasuan (%25,3) baino askoz ere gehiago dira.

Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra gauzatzeko diru-sarrerarik ez duten 18 eta 44 urte bitarteko pertsonen banaketa, aztertutako aldagaien arabera (%)



(1) Multzo horretan sartu dira norbere kontura ari direnak eta bazkide kooperatibistak

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza-beharrei eta -eskariari buruzko estatistika

## 2.2.- Emakumeen etxebizitza babestuen eskaria EAEn

Etxebizitza beharrei eta eskariari buruzko inkestan oinarrituta egin dugun azterketarekin batera, babestutako etxebizitzaren eskatzaileen erregistro ofizialak (Etxebide) EAeko emakumeen etxebizitza babestuen eskaria areago aztertzeko aukera ematen digu. Ondoren, azterketa horren ondorio nagusiak aurkeztuko ditugu:

### ⊗ EAeko emakumeen etxebizitza babestuen eskariaren garrantzi erlatiboa

2015eko abenduan 34.161 emakumek zeukaten Etxebiden izena emanda; hau da, data horretan izena emana zuten pertsona guztien %51,9. Emakumeen eskaerak nagusi dira Bizkaian eta Gipuzkoan; Araban, ordea, gizonen eskaerak emakumeenak baino pixka bat gehiago dira.

Gazteen artean, emakumeek egindako eskaerak gizonen egindakoak baino askoz gehiago dira. Hala, 18-24 urteko adin-tartean emakumeen eskaerak guztizkoaren %65,2 dira, eta 25-29 urteko adin tartean, berriz, %58,2. Soilik 40-59 urteko adin tartean nagusitzen dira Etxebiden etxebizitza babestua eskatu dutenen gizonak emakumeen gainetik.

Generoarekin lotura handiena adierazten duen aldagaietako bat diru-sarreraren maila da. Hartara, emakumeen eskaerak gehiago dira diru-sarreraren maila apaltzen doan heinean. Aitzitik, Etxebiden izena eman eta 25.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten biztanleen gaineko emakumeen pisu erlatiboa %40aren azpitik kokatzen da, eta urtean 39.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten taldean, berriz, %30 inguru.


Egoera zibilar eta bizikidetzatza moduei erreparatuta, aztertutako tipologia guztietan nagusitzen da emakumeen eskaria, baina are gehiago banatutako eta dibortziatutako pertsonen kasuan (%56,6 eta %56,9 hurrenez hurren). Ezkondutako pertsonen kasuan soilik, emakumeen eta gizonen eskaerak antzeko pisu erlatiboa dute (%49 eta %51 hurrenez hurren).

Azkenik, emakumeek gizonen baino gehiago aukeratzen dute alokairua. Hala, azpimarratzekoa da alokairuko etxebizitza babestua eskatzen duten emakumeen pisu erlatiboa gizonena baino handiagoa dela (izena emana duten guztien %52,7). Etxebizitza babestua erostea aukeratzen dutenen artean, berriz, emakumeak gutxiago dira: %50 baino gutxiago.




## Etxebiden izena eman duten pertsona guztiekiko emakumeen pisu erlatiboa, aldagaiaren eta taldearen arabera (2015).


### Adina




### Diru-sarrerak




### Nazionalitatea




### Lurralde historikoa



### Egoera zibila



### Etxera eskuratzeko erregimena



Iturria: Etxebide



## ⊗ Emakumeen etxebizitza babestuen eskariaren ezaugarriak adin-tarteen arabera

Orain arte azaldutako azterketarekin batera, interesgarria da emakumeen etxebizitza babestuen eskariaren ezaugarrietan sakontzea. Horretarako, 2015eko abenduan Etxebiden izena emana zuten emakumeak adin-tartearen arabera banatu eta aztertu ditugu.

Garrantzi handiko egiaztapena, sarrera maila baxua duten izena emandako emakumeen pisu erlatibo handiarekin lotzen da. Adin tarte guztietan, Etxebiden izena eman duten 10 emakumeetatik 9k, gutxienez, 25.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte.

Diru-sarreraren maila apal horren ondorioz, emakumeek alokairuaren aldeko aukera egiten dute adin-tarte guztietan. Dena dela, alokairuko etxebizitza babestuen eskaera are handiagoa da emakume gazteen artean (18 eta 24 urtekoen artean %93 dira), bai eta emakume heldu eta adinekoen artean ere (40 urtetik gorako emakumeen artean %90 baino gehiago).

Emakumeen egoera zibilaren arabera, 50 urtetik gorako emakumeen artean, bananduen eta dibortziatuen eskaera oso nabarmena da. (50-59 urtekoen artean %32,7ra iristen da eta %27,8ra 60 urtetik gorakoena).

Elementu batek eskatutako etxebizitza kopurua are handiagoa izatea eragiten du: banakako eskaerak bikoteka egindakoak baino askoz ere gehiago direla.

Hala, adin-tarte guztietan emakume ezkongabeei lotutako eskaera nabarmentzen da: 35 urtera arte eskaria osoaren %70, eta 35-39 urteko adin-tartean, %60tik gora. Zentzu horretan, azpimarratu egin behar da emakume helduen eta adinekoen artean ere banaka egindako eskaerek pisu erlatibo handia dutela. Adibidez, 40-49 urte bitarteko emakumeen artean %48,8k egiten du banakako eskaera, eta 50-59 urtekoen artean, %35,7k.





**Etxebiden izena eman duten emakumeen ezaugarriak adin taldearen arabera (2015)**


	18-24 urte	25-29 urte	30-34 urte	35-39 urte	40-49 urte	50-59 urte	60 urte eta gehiago
<b>DIRU SARRERAK</b>							
Diru-sarrerarik gabe	33,6	18,1	19,1	20,4	24,0	27,4	24,4
9.000 euro eta gutxiago	32,8	24,9	20,9	21,9	21,0	22,5	24,0
9.001 - 15.000 euro	32,0	49,7	51,2	49,2	48,1	43,1	48,2
25.001 - 39.000 euro	1,4	7,0	8,2	7,6	6,3	6,3	2,9
39.001 - 50.000 euro	0,1	0,2	0,6	0,8	0,5	0,8	0,3
50.000 urtetik gora	0,0	0,1	0,1	0,1	0,1	0,0	0,1
<b>NAZIONALITATEA</b>							
Atzerritarrak	28,5	25,1	29,5	31,1	26,8	18,6	11,7
Espainiarrak	71,5	74,9	70,5	68,9	73,2	81,4	88,3
<b>LURRALDE HISTORIKOA</b>							
Araba	18,8	12,1	13,1	12,7	10,5	10,6	8,3
Bizkaia	48,3	54,4	56,5	57,3	57,5	55,4	54,6
Gipuzkoa	32,0	33,2	30,2	29,8	31,8	33,8	37,0
Lurralde historikorik gabe	0,8	0,4	0,3	0,2	0,3	0,2	0,1
<b>EGOERA ZIBILA</b>							
Ezkondua	27,0	19,2	22,5	27,6	27,8	25,1	25,7
Dibortziatua	0,3	1,6	4,7	9,8	17,1	23,8	19,6
Banandua	0,2	0,3	0,6	1,5	4,3	8,9	8,2
Sailkatu gabe	0,7	0,5	0,6	0,4	0,4	0,6	1,3
Ezkongabea	71,8	78,3	71,4	60,3	48,8	35,7	20,4
Alarguna	0,0	0,1	0,2	0,4	1,8	5,9	24,9
<b>ERREGIMENA</b>							
Alokairua	93,0	77,3	74,4	78,4	81,5	86,6	93,2
Erosketa	7,0	22,7	25,6	21,6	18,5	13,4	6,8

Iturria: Etxebide

### 3. Babes publikoko etxebizitza eskuratzeari eta etxebizitzarako laguntzei buruzko genero-azterketa

2012 eta 2015 bitartean, EAEn 13.000 emakume inguruk eskuratu zuten era bateko edo besteko etxebizitza babesturen bat (Eusko Jaurlaritzak sustatutako etxebizitzaren formatu eta modalitate guztiak aintzat hartuta). Esleipen guztiekiko pisu erlatiboari erreparatuta, esan daiteke gizonak eta emakumeek antzeko ehunekotan eskuratu zituztela etxebizitza babestuak, edota, beharbada, emakumeek pixka bat gehiago.

**Etxebizitza babestua eskuratu duten emakumeen pisu erlatiboa, gizonekin alderatuta (2012-2015)**



\*Datuak ez dira %100era iristen, erregistro batzuetan generoa zehaztu gabe dagoelako.


Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzako Sailburuordetza

Ikerketa-ildo horretan, 2015ean Etxebizitzaren Euskal Behatokiak EAEn babestutako etxebizitza eskuratu zuten herritarrei buruzko txostena kaleratu zuen. Txosten horretan, babestutako etxebizitzaren esleipenak ez ezik, alokairua sustatzeko programen (hala nola Biziguneren eta Asaperen) onuradunak ere hartu ziren aintzat.

Etxebiden 2015ean izena emana zuten emakumeen pisu erlatiboa (zehazki %51,9) abiapuntutzat hartuta, eta etxea eskuratzeko ekitate-ikuspegian oinarrituta, etxea eskuratzeari ekitatea egiaztatzen duten emaitzak berretsi ditugu. Horrenbestez, Alokabideren, Biziguneren eta etxebizitza babestuen esleipenetan, emakume gehiagok eskuratu dute etxebizitza gizonak baino. Kasu gehienetan, esleipendunen eta onuradunen %60ko kuota gainditzen da.

ASAP programaren maizterren kasuan soilik ikusten da emakume errentarien pisu erlatiboa txikiagoa dela (%47,5) gizon errentarien aldean.

## Esleipendunen banaketa generoaren eta etxebizitza motaren arabera 2015



Iturria: Etxebizitzako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza babestuen biztanleria esleipendunari inkesta, 2015


Txosten horren arabera, emakume esleipendunen eta onuradunen ezaugarriak bat datoz etxebizitza babestua eskatzen duten emakumeak aztertzean azaleratu diren profil eta ezaugarriekin:

- Etxea esleitu zaien emakumeen artean, bananduen eta dibortziatuen garrantzi erlatiboa (%14,2) gizonen artean baino altuagoa da (%7,2).
- Gazteenei etxea esleitu zaienean, emakume gazteen pisu erlatiboa handiagoa da gizon gazteena baino (34 urtetik beherako esleipendunen %39,4 emakumeak dira eta %36,4 gizonak).
- Bikoteei eta familiei aitortutako esleipenen garrantzi erlatiboa handiagoa da emakumeen kasuan gizonen kasuan baino, eta nabarmena da pertsona bakar bati esleitutako etxebizitzaren berriazko pisua.

Azpimarratzekoa da, halaber, etxebizitza esleitu zaien emakumeen batez besteko diru-sarrerak gizonenak baino apalagoak direla (-%7). Izan ere, emakumeen hileko batez besteko diru-sarrerak 1.300 eurokoak dira, eta gizonezkoenak, berriz, pixka bat altuagoak (1.398 euro).

Egoera ekonomiko horren aurrean, etxe babestua eskuratu duten emakumeen %24,2k dio babestutako etxebizitza ordaintzeko arazoak dituela. Kopuru hori etxebizitza babestua eskuratu duten gizonen kasuan baino altuagoa da (%20,8 azken horien artean).

## Etxebizitza babestua esleitu zaien emakume eta gizonen ezaugarri soziodemografikoak (%)



Iturria: Etxebizitzako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza babestuen biztanleria esleipendunari inkesta, 2015



Azkenik, prestazio-sistemaren onuradunen ezaugarriak eta estaldura-maila aztertu dugu, alor horretara bideratzen diren laguntza publikoen aurrekontu-tamaina dela eta.

Etxebizitzaren alorreko prestazioen artean nabarmentzekoa da Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO), Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) osagarritzat egituratzen dena. EPOa etxebizitza edo ohiko bizitokia alokatzeko gastuak estaltzera bideratzen da, erregimena edozein izanda ere: errentamendua, azpierrentamendua, errentamendukidetzeta nahiz logelaren alokairua. 250 euro izaten dira hilean, gehienez.

Lanbideren datuen arabera, prestazio hori jasotzen duten emakumeen pisu erlatiboa %50 ingurukoa da azken urteetan. 2016ko martxoan, zehazki, 14.957 emakume ziren EAEn. Hartara, eta aurretiaz esandakoaren ildotik, esan daiteke emakumeek eta gizonak antzeko estaldura-maila dutela etxebizitzarako prestazioan.



### EPOa jasotzen duten herritarren banaketa generoaren arabera (2014-2015 eta 2016ko martxoa)



Iturria: Lanbide



## 4. Ondorioak

EAEko politika publikoen diseinuaren eta ezarpenaren ondorioz, sexu-diskriminazioa saihesteko arau-printzipioak betetzen direla bermatzen da. Etxebiden izena emateko ereduak berak, bai eta etxebizitzak esleitzeko sistemak ere, sexu-diskriminazioa egotea saihesten dute. Ildo beretik, erakunde publikoek Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak zehazten dituen printzipioak zorrotz errespetatzen dituzte etxebizitzarako laguntzen sistema kudeatzean.

Krisialdiak gogor kolpatu duen azken urteotan, EAEko etxebizitza-politikak (gizarteratzeko beste politika batzuekin eta beste gizarte-politika batzuekin batera) egoera sozioekonomiko zailari egin behar izan dio aurre. Emakumeen kasuan, gainera, laneratzearen inguruko adierazleek are datu okerragoak azalera dituzte.

Emakume langileen artean, laneko prekarietate-maila eta lanaldi partzialeko kontratuak gizonen kasuan baino ugariagoak izan dira, txosten honen lehen kapituluan ikusi ahal izan dugun bezala. Etxebizitza-eskariaren ikuspegitik eta datozen urteetarako proiektzioen harira, egoera hori are nabarmenagoa da emakume gazteen kasuan eta, ondorioz, are zailtasun handiagoak izango dituzte euren bitartekoak erabiliz emantzipazioa eta bizitza-proiektu independentea lortzeko.

Testuinguru horretan, 2015eko Etxebizitza beharrei eta eskariari buruzko inkestaren arabera, 30.957 emakumek zuten lehen etxebizitza eskuratzeko beharra, bai eta behar hori estaltzeko diru-iturrien bat ere. Halere, emakume horien arabera, euren diru-iturriak ez dira behar hori estaltzeko nahikoak (beharrizan hori adierazi duten emakume guztien %82k dio bere diru-sarrerak ez direla nahikoak).

Etxebidek, bere aldetik, 34.161 emakume zituen 2015ean etxe babestuen eskatzaileen erregistro ofizialean. Emakume horietatik gehien-gehienek urtean 28.000 eurotik beherako diru-sarrerak zituzten; hau da, garai berean Etxebiden izena emanda zuten gizonek baino diru-sarrera apalagoak. Ildo beretik, azpimarragarria da etxebizitza babestua eskatu duten emakumeen artean kolektibo zehatz batzuek, hala nola banandutakoek eta dibortziatuek hartu duten pisu erlatibo handia (etxe babestuen eskatzaileen artean bananduta dauden pertsona guztien %56 emakumeak dira, bai eta dibortziatutako pertsona guztien %56,9 ere).

Administrazio publikoak kolektibo mota horien etxe-beharrari erantzuten ahalegindu dira, krisi ekonomikoak eta atzeraldiko aurrekontu zurrunez ahalbidetu duten heinean.



Hala, egoera zail horretan, 2012tik hona, babes publikoko etxebizitza esleitu zaien 13.000 emakumez gain, beste 15.000 emakumek jasotzen dute etxebizitzarako prestazio-osagarria, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioarekin batera.

Azkenik, eta txosten honen emaitzek agerian utzi duten bezala, nabarmentzekoa da EAEko Administrazioek, eta zehazki Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-alorreko programa eta politikek, bermatu egiten dutela etxebizitza eskuratzean emakumeen eta gizonen arteko ekitatea egongo dela.

Hala, txosten honen hirugarren kapituluko emaitzek berretsi egiten dute 2012tik 2015era bitartean emakumeek gizonen parean, edo pixka bat gehiago ere bai, eskuratu dituztela etxebizitza babestuak.

Era berean, Bizigune eta beste programa batzuen onuradunen artean emakumeak nagusi dira, eta etxebizitzarako prestazio osagarriari dagokionez, onuradunak %50 banatzen dira gizon eta emakumeen artean.